



ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arregui Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz ondorengo agintzea erabaki dut:

Artikulu hauetan xedatutakoa betetzeko: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. eta 46. artikulua; Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea; eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 79., 80 eta 82. artikulua.

2021eko abenduaren 16an onartutako saioen egutegia ikusita.

Alkate-udalburua naizenez, bai eta toki-araubidea arautzen duen indarreko araudiak ematen dizkidan ahalmenak ikusita,

Erabaki dut:

Udalbatzaren ohiko bilkurarako deia egitea. Bilkura hori udal honetako Osoko Bilkuren Aretoan egin beharko da, 2022ko otsailaren 24an, 18:30etan, lehen deialdian, eta bi egun geroago eta ordu berean, bigarrenean. **Gai-zerrendako gai hauek aztertuko dira:**

1. Onartzea, hala badagokio, 2022-01-27ko ohiko osoko bilkuraren akta, (1.2022).
2. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Banku abalaren itzulketa onartzea, Hirigintza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko otsailaren 2an.
3. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Ulma Scoop taldearekin sinatutako hitzarmena amaitzea eta abala itzulketa onartzea, Hirigintza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko otsailaren 2an.
4. Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena: Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen diren eskatzaileen obrak, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko otsailaren 8an.
5. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: 2022ko Auzotasun programa garatzeko diru-laguntza izendun eta zuzena bideratzeko hitzarmenaren onarpena, Zerbitzuak eta Landa Garapen Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko otsailaren 15ean.
6. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Auzotasuna deritzon diru-atal gehigarriaren oinarri arautzaileak eta 2022ko aurreneko laguntza deialdia onartzea, Zerbitzuak eta Landa Garapen Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko otsailaren 15ean.
7. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Ingurumena eta Landa Garapen sailak kudeatzen dituen diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta 2022ko deialdia (1051/esp) onartzea, Zerbitzuak eta Landa Garapen Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko otsailaren 15ean.
8. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Etkez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko Oñatiko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko

hitzarmena, Gizarte Zerbitzuetako Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko otsailaren 15ean.

9. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Eguneko Arreta udal zerbitzua arautzen duen ordenantzari hasierako onarpena ematea, Gizarte Zerbitzuetako Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko otsailaren 15ean.
10. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Gizarte larrialdietarako udal laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta 2022ko deialdia onartzea, Gizarte Zerbitzuetako Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko otsailaren 15ean.
11. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Gizarte-zerbitzuen arloan diharduten elkarteei diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak, norgehiagoka-prozeduraren bidez, eta 2022ko deialdia onartzea, Gizarte Zerbitzuetako Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko otsailaren 15ean.
12. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko udalaren eta Aloña Mendi kirol elkartearen arteko hitzarmena onartzea, kirol Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko otsailaren 18an.
13. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Kirol elkarte eta taldeentzako diru-laguntzen oinarriak eta 2022. urteko deialdia onartzea, kirol Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko otsailaren 18an.
14. Hala badagokio, presako gaiak.
15. EH Bildu eta EAJ-ren adierazpen instituzionala: Berdintasunaren aldeko konpromisoa indartzeari buruzko, 2022ko martxoaren 8ko eguna dela eta.
16. EH Bildu eta EAJ-ren adierazpen instituzionala: SEADen 46. urteurrena
17. EH Bildu taldearen mozioa: Eukalipto-landaketak debekatzearen aldeko mozioa.
18. Hala badagokio, larrialdi-mozioak.
19. 2022eko urtarrilaren 21etik 2022 otsailaren 16ra bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 34 zenbakitik 180 zenbakira.
20. 2022ko Toki Gobernuako Batzordeen akten berri ematea (2. Eta 3. Saioa).
21. Galderak eta eskaerak.

Jakinaraz bekie berehala Udalbatzako zinegotzi guztiei, eta ohartarazi Idazkaritzan eskura dutela gai-zerrendan jaso diren aztertu beharreko gaiei buruzko dokumentazioa, eta, arrazoi justifikaturen bat dela-eta bilkurara joaterik ez badute, alkate-udalburuari jakinarazi beharko diotela, behar besteko aurrerapenaz.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut

Oñatiko 2022eko otsailaren 21ean

Alkateak

Izaro Elorza Arregui